

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Aldi baterako eta behin-behinean etetea C-6210 zaharra Uskategi auzoarekin lotzen zuen bide publikoaren mugaketa

Iragarki honen bidez, herritar orok jakin dezan aditzera ematen da aipatutako espedientean udaleko zerbitzu teknikoek txostena egin dutela, eta bertan honako alderdi hauek jasotzen direla:

“Udalak, 2019ko azaroaren 28ko osoko bilkuran, erabaki zuen C-6210 zaharra Uskategi auzoarekin lotzen zuen bide publikoa mugatzeko prozedura hastea.

Kontuan hartuz hauek:

Mugaketa prozedura horri hasiera eman ondoren, Gentza Gutiérrez Barrenengoa andreak, bide horrekin mugakide den lursail baten jabearen ordezkariak, idazki bat aurkeztu du, eta azterlan bat erantsi du. Azterlan horretan adierazi da bide publiko horrek, ustez, mugatu nahi dena baino luzera handiagoa izan beharko lukeela.

Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onesten duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak 9. artikuluan adierazitakoa oinarri hartuta, eta udalak partikular horrek alegatutako inguruabarrari buruz egin beharreko egiaztapenak egiteko, eta dauden datuak eta interesdunak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu eta aztertzeke, beharrezkoa da aipatutako bide publikoa ikertzeko espedienteari hasiera ematea. Bien bitartean, hasitako mugaketa espedientearen izapidetzea aldi baterako eta behin-behinean etetea erabaki da, egiten den ikerketaren ondorioz, hura izapidetzen jarraitzea edo ez jarraitzea erabaki dadin.

Horren ondorioz, interesdunei jakinarazten zaie, aipatutako txostenarekin bat etorritik, mugaketa espediente honen izapidetzea aldi baterako etengo dela, gehienez ere 6 hilabetez, Gentza Gutiérrez Barrenengoa mugaketa prozeduran aurkeztutako dokumentazioa aztertu ahal izateko, eta, horrela, bidezko egiaztapenak egin ahal izateko, datuak kontrastatuz, bai eta horretarako egokiak diren ikerketa-lan tekniko guztiak egin ahal izateko ere.

Halaber, jakinarazten da ikerketa eta egiaztapen horiek egin ondoren, hala badagokio, etendako mugaketa prozedurari ekingo zaiola berriro, edo, bestela, mugaketa espediente berri bat hasiko dela, eta interesdun guztiei jakinaraziko zaiela, jakinaren gainean egon daitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Amurrio, 2020ko urriaren 26a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA